

## *Jakin*: 1956-2006

50 urte horretan *Jakin* zer izan den, eta gaurdanik aitzina zer izan daitekeen, lerro gutxitan azaltzeko eskatu dit *Joan Mari Torrealdai* lankide eta adiskideak.

Eta lehenengo 25 urteetan (1956-1981) zer idatzi genuen berrirakurtzea bururatu zait. (Ikus horretarako 21. zenbaki ezin mamitsuagoa, 1981, «25 urte Euskal Kulturari».)

Eta orduan finkatutako ideiek gaur ere balio osoa dutela iruditu zait.

«Talde-bateragilea izatea» proposatu zen aldizkariaren ezau-garri nagusitzat. Eta, geroari buruz mintzo, «etorkizuna eginkizun» denez, «eginkizun» orokor horretan laguntzaile jokatzea.

Oso garai desberdinak gainditu ditu *Jakinek* bost hamarkada horietan. Eta, hein batez bederen, bere bidea egokiro aurkitu duela esango nuke.

Frankismoaren amaierako lehenengo hogeietan (1956-1975) oso problematika desberdina ezagutu zuen. Euskal arazoaz arduratzen zirenek (eta euskararen alorrean zihardutenek berdintsu) ezin zezaketen inolako «sari»rik espero: ez ekonomikorik, eta ez gizarte osperik ere. Egurra eta debekuak ez ziren urrun!

Euskara Batuaren gorabeheretan murgiltzen zenak, adibidez, ez zuen inolako ordainik bere ikus-ertzean.

Bide beretik, kapitalismo/sozialismo dikotomian; marxismoa-ri bai/ez, edo zein kondiziotan; edota independentzia/autonomia bikotean, hitzerdika mintzatu edo idatzi behar zuen; eta jipoia noiz iritsiko zitzaion beldurrez.

Franco hiltzean, gauzak ez ziren batzuen ustez behar edo nahi adina aldatu. Baina beste fase batean sartuak ginela ezin zen ukatu.

Eta *Jakinek*, gainerako euskal elkarte eta instituzio guztiek bezala, bere aldaketa sakona burutu behar izan zuen.

Eskuragarri gerta zitezkeen alorretan argi-emaile eta laguntzaile izatea erabaki zuen. Eta gai monografikoak ugaltu ziren, datuz eta ideiaz erruz hornituak.

Zerrenda osoa eskaintzea, alfer lana litzateke. Urte oparoak. Liburu sail gordegarri bikaina osatu du *Jakinek*.

Eta horrela iritsi gara 155. ale honetara.

Eta galdera ziplo dator: «eta orain zer?».

Eta nik neure irizpidea emango dut: *2006ko Euskal Herri honen zerbitzuko saiatu behar lukeela ondoko 25 urteotan.*

Praktikak erakutsi du ongienik mendeбетetsu honetan zertan ibili ginen xuxen, eta zertan desbideraturik edo moden morroi. Hau jator eta zehazki erakustea izango da mesedegarri.

Espainiar naziokeria guk uste baino sendoago eta erasokorrago agertzen da bazterretan. Batera dator Espainia ia-ia osoa euskaltasuna maiseatzeko, mehatxatzeko, kolpatzeko eta zigortzeko. Erdal kultur asimilakuntza aurrera doa begi-bistan. Eta berriro ere euskaltzaletasunak militantzia eta ausardia eskatzen dizkigu sail askotan.

*Jakinek* daraman borroka zaildu egin da.

Alde batetik, 18-98 epaiketa amaigabeen ikusi denez, anti-terrorismoaren aitzakian, *euskal kulturgintza* xehatu nahi da. Epaiketa famatu horretan *euskara* da helburua.

Preso abertzaleekiko jarrera basati eta iraunkorra (sakabaketa, zigorren luzaketa) izan daiteke seinalerik larriena. Eta ez da motelagoa kale-borroka kale-terrorisмотzat epaitzea.

Honetan guztian etendura bat sortzen ari da; eta ausarki behar da ikertu eta plazaratu. Etsaiaren joko abilaren ondorioz:

*borroka* daramaten pertsonen multzoa, medien lan etengabeaz, *herri arruntetik* at utzi nahi da.

Gose-greba dramatikoetan ageri izan da gailen haustura hori.

Zer jokabide hartu behar lukete *Jakinek* eta *Jakinen* idazten duten intelektualek?

Ene uste apalez, *intelektualen sinesgarritasuna* dugu balio gorena.

Berriro ere, beste askotan bezala, *Bertrand Russell* eta *Jean Paul Sartre* dauzkat eredu. Hauek bezala, herri honek jasaten duen eraso hazkorraren aurrean, euskal intelektualak, luma duen iskilua baliatuz, bere herriaren defentsan altxatu behar du.

Nolabait «jaitsi» egin behar du herrira, abstrakzio estratosferiko alienatzaileen erreinu erosoan amets egiteko tentazioari ihes eginez.

Horra nire irizpidea.